

# AKTA

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2022ko uztailaren 28a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:30    **BUKATZEKO ORDUA:** 19:45

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Anuska Esnal Oliden

**Zinegotziak**

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Iburguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## Gai-zerrenda

- 1.- 2022ko bigarren hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
- 2.- 2022ko udal-aurrekontuaren bigarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 3.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, 2021eko udal-aurrekontuaren kontu orokorra.

- 4.- Karela udal-kiroldegiaren kudeaketaren oreka ekonomikoa bermatzeko txostenaren berri ematea eta dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada.
- 5.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- 2022KO BIGARREN HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

### **2.- 2022KO UDAL-AURREKONTUAREN BIGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

### **3.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, 2021EKO UDAL-AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA.**

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2021eko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeke eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharrak idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2022ko ekainaren 7ko GAOn (107. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea eta oharrak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 8an hasi zen eta ekainaren 28an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]; gehiengo osoa, beraz]:

**ONARTZEA** Udalaren 2021eko aurrekontuaren Kontu Orokorra, aurrekontu propioak osatzen duena.

### **4.- KARELA UDAL-KIROLDEGIAREN KUDEAKETAREN OREKA EKONOMIKOA BERMATZEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA ETA DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Txostena Udaleko kirol-teknikariak eginga da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2021eko uztailaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**ONTZAT EMATEA** Karela udal-kiroldegiaren kudeaketaren oreka ekonomikoa bermatzeko Udaleko kirol-teknikariak emandako txostena eta, ondorioz, batetik, luzatzea aipatutako zerbitzuaren kudeaketarako kontratazio publikoa 2024ko urtarrilaren 31ra arte; eta, bestetik, Udalak bere gain hartzea horniduren gainkostua (gasa eta elektrizitatea) eta Karela kiroldegiko langileen ordainsariei dagokien gainkostua.

## **5.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**